LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK
alkate-udal burua
IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN
zinegotziak
JONE ZUBELDIA ALTUNA
ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA

SABINO SAN SEBASTIAN MURUA
IRATI ZABALA URRIZA
IDAZKARIA
NEREA ESNAOLA GALAN

Lizartzan, 2025ko otsailaren 24, arratsaldeko 18:30tan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Nerea Esnaola Galanek, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio alkateak, eta hauek izan dira jorratutako gaiak

LEHENA. 2025eko plantilla organikoaren aldaketa onartzea, 2025eko aurrekontuarekin bat etorriz.

Idazkariak alkatearen proposamena azadu du, hona proposamena:

“ **ALKATEAREN PROPOSAMENA**

Iñaki Azpiroz Beldarrain Lizartzako Udaleko alkateak, 21.1.h artikuluaren arabera langile guztien buruzagitza nagusia izanik, eta Lizartzako Udaleko idazkariak egindako txostenarekin bat etorriz, honako proposamen hau egin dio Udalbatzari:

IKUSITA:

LEHENENGO.- Lizartzako udalean administrari laguntzaile lanpostu bat dago, eta %100ean jabetzan funtzionario publiko batek okupatzen du. Funtzionario horren jubilazioa dela eta, lanpostu hori hutsik geratuko da 2025eko ekainean.

ASKATASUNAREN PLAZA, 1 • Tel: 943 670700 • lizartza@lizartza.eus • 20490 LIZARTZA (Gipuzkoa)

BIGARREN.- Lizartzako Udalean, langile gutxi dagoenez eta idazkari kontu-hartzaileak ere %60ko lanaldia duenez, beharrezkotzat jotzen da administrari laguntzailearen lanpostua amortizatzea eta goragoko mailako administrari bat sortzea, kontu-hartzailetzako idazkariarekin lankidetzan aritu ahal izateko (kontabilitatea, aurrekontua gauzatzea, kontratatazioa...). Idazkari kontu-hartzaileari laguntza emateko eginkizunetan laguntzeaz gain, administrariak orain arte administrazio-laguntzaileak egiten zituen lanak egingo ditu. Hala ere, datozen hilabeteetan langileen katalogo bat egitea aurreikusten da, lanpostu bakoitzaren funtzioak eta zereginak argi eta garbi definitzeko.

HIRUGARRENA.- Idazkariaren txostenaren arabera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 4. artikuluan aitortzen den autoantolaketarako ahalmenaren barruan sar daiteke toki-erakundeak lanpostu berriak amortizatu edo sortzeko erabakia hartzeko duen gaitasuna, betiere dagozkion lege-izapideei jarraituz eta arrazoiak emanez. Gainera, erabaki horiek langileen ordezkaritzarekin aztertu behar dira, langileei eragiten dietenean negoziatu egiten baitira. Hala ere, aldaketa hori funtzionarioa erretiratu ondoren egiten denez, ez dio zuzenean eragingo ezein langileri; beraz, negoziaziotik kanpo geratzen dela uler daiteke.
Gainera, TREBEPen 37.2 artikuluaren arabera, negoziaziotik baztertutako gaiak dira administrazio publikoen erabakiak, baldin eta haien antolamendu-ahalei eragiten badiete.

LAUGARRENA.- 2025eko ekitaldiko aurrekontuan, kontu-hartzailetzako administrariaren nominara bideratutako aurrekontu-partida bat sartu da lehen kapituluan. Kontu-sail horretan, ekain-abenduko lanpostua betetzeko aurrekontu-kreditua sartzen da. Izan ere, ulertzen da administrari berria sartu beharko dela aurreko administrari laguntzailea erretiratzen denean.

HAU PROPOSATZEN DA:

LEHENENGOA.- 2025eko aurrekontuarekin bat, kontu-hartzailetzako administrari lanpostu bat sortzea eta plantillan sartzea.

BIGARRENA.- Administrari laguntzaileak erretiroa hartzen duenean, lanpostu hori amortizatzea eta plantilla amortizazio horren arabera aldatzea.

HIRUGARREN.- Plantillaren aldaketak, bai sorrera orain, bai amortizazioa gero, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Kontu-hartzailetzako administrariaren lanpostua sortuko duen plantilla behin betiko onartu ondoren, 2025. urteko Lan Eskaintza Publikoa onartzea."

Hori azalduta, jakinarazi da onartzen bada proposamena, hau izango dela 2025 urteko plantilla organikoa Lizartzako udalarentzat:

IZENA	Lanp. Kop.		Egoera	%
IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK				
Idazkari-Kontuhartzailetzaren Azpimaila				
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	1	A1	H	60%
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA				
Laguntzaileen Azpimaila				
ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA	1	C2	J	
KONTUHARTZAILETZAKO ADMINISTRARIA	1	C1	H	
ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA				
Azpimaila Teknikoa				
*** Mota: Erdiko Teknikariak**				
GIZARTE LANGILEA	1	A2	H	36%
Administratiboa/				
*** Mota: Laguntzailea**				
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	1	C2	J	40 %
Zerbitzu Bereziak				
***Mota: Ofizioetako Pertsonala**				
ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA	1	C2	H	
ZERBITZU ANITZETARAKO PEOIA	1	E	H	
GARBITZAILEA	1	E	J	55 %

BOZKETA.- Aho batez onartu da.

BESTEAK.- Ez dago bestelako gairik.

Hori horrela, arratsaldeko 19:00etan bilkura amaitu zen.

Lizartza, 2025eko otsailaren 26an

ALKATEAK IDAZKARIAK